

## BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5477

*EBAZPENA, 2021eko urriaren 8koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez zuzentzen baita 2021eko irailaren 13ko Ebazpena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak ematen baitira 2021erako.*

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2021eko irailaren 13ko Ebazpenaren bidez, ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak eman ziren 2021erako.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenaren arabera, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Akats material bat antzeman da 2021eko irailaren 13ko Ebazpenean, zeinaren bidez ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak eman baitziren 2021erako, eta zuzendu egin behar da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2021erako ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak ematen dituen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2021eko irailaren 13ko Ebazpena zuzentzea, honela:

Hau dioen lekuan:

«Aipatutako deialdi-ebazpenaren 4. artikulua horretarako izendatu duen balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa tekniko egin eta gero, proposatu da 7 eskabide onartzea. Horien zenbatekoa, guztira, 1.358.318,20 eurokoa da. Ondorioz, aipatutako deialdirako emateko geratzen den zenbatekoa 54.097,76 eurokoa da. Hori guztia kontuan hartuta, hau»

Hau esan behar du:

«Aipatutako deialdi-ebazpenaren 4. artikulua horretarako izendatu duen balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa tekniko egin eta gero, proposatu da 7 eskabide onartzea. Horien zenbatekoa, guztira, 1.358.385,20 eurokoa da. Ondorioz, aipatutako deialdirako emateko geratzen den zenbatekoa 54.030,76 eurokoa da. Hori guztia kontuan hartuta, hau»

Bigarrena.– Zuzendu den ebazpenaren gainerako edukiari bere horretan eustea.

2021eko urriaren 27a, asteazkena

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beraren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 8a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.